

Irizar i6 modeloko 1.000. unitatea entregatu da

Irizarrek bere Irizar i6 autobusaren 1.000. unitatea entregatu du

Irizarrek lantegian bertan egindako ekitaldi batean entregatu du Irizarrek bere Irizar i6 modeloko 1.000. unitatea, Ormaiztegi lantegian egindakoa.

Irizar i6 2010eko azaroan Madrilen egin zen Autobusen eta autokarren Nazioarteko Azokan -FIAA- aurkeztu zen. Bi urte beranduago, pozez baieztatu dezakegu autokarrari harrera oso ona egin diotela saltzen den hainbat merkatutako bezeroek, datu honek erakusten duenez.

1.000. unitate horri Irizarren gainerako produkzio-plantetan saldutako 800 unitateak gehitu behar zaizkio. Izan ere, iaz Irizar i6 Australiara, Brasilerara, Hegoamerikako beste hainbat herrialdetara, Hegoafrikara eta Mexikora iritsi zen.

Australiako aurkezpen ofiziala 2010eko uztailean egin zen Melbournen 13.4 eta 14.5 metroko bertsioen prototipoekin eta ADR australiar homologazio arau zorrotzak betez.

Australiako aurkezpenari Hegoafrikakoak jarraitu zion. Ekitaldia joan den urteko abuztuaren 29an egin zen Centurion hirian. Brasildik zuzenean inportatutako 14 metroko bi unitaterekin egin zen aurkezpena.

Produktua Brasil eta Hegoamerikako beste herrialde batzuetako espezifikazioetara egokitzeak ere lan handiak eragin ditu. Aurkezpen ofiziala Exponibus azokaren inguruan egin zen Rio de Janeiroko Riocentro erakustazokan, urriaren 3tik 5era artean, hain zuzen ere. Irizar i6aren hainbat bertsiotako 4 unitate erakutsi ziren han.

Mexikoren kasuan i6 berriaren aurkezpen ofiziala azaroaren 8an egin zen Mexiko Hiriko Polyforum Siqueirosen. Bidaiari eta turismoaren arloko garraio enpresa garrantzitsuenetako zuzendariak parte hartu zuten ekitaldian.

Gaur egun, Irizar i6a bertsio integralean eta merkatuan eskuragarri dauden txasis marka guztien gainean fabrikatzen da. Egokitzeko duen gaitasun handiaren isla da 10.7 metro luzetik 15 metro luzera arteko konfigurazioa izan dezakeela, zabalean 2,5etik 2,6ra arte eta bi altuera aukeran, 3,5 edo 3,7. Horrez gain, bezero eta merkatu zorrotzenen eskaerei erantzuteko aukera multzo handia du.

Irizar i6 balio anitzeko eta gama altuko autobusa da, ohiko zerbitzuak nahiz bereziak egiteko ezin hobea. Nabarmentzekoak dira haren zerbitzuak, diseinua, aerodinamika, xehetasunak eta erosotasuna. Azken batean, azken teknologiadun autobusa, zitura, fidagarria eta errentagarria. Irizar taldeari arrakasta ekarriko dion autobusa, zalantzarik gabe.

Informazio gehiagorako hona hemen harremanetarako datuak:

Ana Eceiza,

mail: aeceiza@irizar.com,

tel.: + 34 667181833